



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/12/28

## **Bizkaiko Ahalduen Nagusiak eta bere taldeko sei kidek oposizioari erantzun deutsie, Batzar Nagusietako Kontroleko azkenengo osokoan**

Lurralde Historikoko 2018rako Aurrekontu Orokorren Foru Arau Proiektua onesteko izapidea bukatu ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiek urteko azkenengo saioa egin dabe, Kontroleko Osokoa. Osokoaren eguneko gai zerrendan, oposizioaren taldeek egindako bost itaun eta zortzi erantzun-eske jasotzen ziran. Bost puntu Unai Rementeria Ahalduen Nagusiak erantzun ditu; bi Gizarte Ekintza (Isabel Sánchez Robles) eta Ekonomia eta Lurralde Garapen (Imanol Pradales) sailletako arduradunek; eta bana Herri Administrazio (Ibone Bengoetxea), Euskara eta Kultura (Lorea Bilbao), Enplegu (Teresa Laespada), eta Iraunkortasun (Elena Unzueta) sailletakoek, hurrenez hurren.

Itaun eta erantzun-eske gehienak gai sozioekonomikoen (Enkarterriren egoeraren gaineko hainbat gai eta Gamesako kaleratzearen gaineko beste bat) eta gizarte ongizatekoen (egoitzen egoeraren eta bertako beharginen ingurukoak) gainekoak izan dira. EH Bilduk, Podemos Bizkaiak, Talde Popularrak eta Talde Mistoak, museoaren kudeaketarako Bizkaikoa erakundearen, foru titulartasuneko Lantik soziedade informatikoaren, Bilbo-Getxo bidegorri proiektuaren edo basoko larrialdi zerbitzuaren berrantolataketaren inguruan gobernu taldeak dauen eretziaren inguruko interesa be erakutsi dabe.

Enkarterriko gizarte eta lan egoerak bereganatu dau protagonismoaren parte handia, Unai Rementeriak, Asun Merinerok (Podemos Bizkaia) eta David Lopategik (EH Bildu) inguru horretako Udalakaz adostuta Enkarterri Sustetako Planaren gainean egin dituen itaunei erantzuteko izan dituan esku-hartze bigaz. Lehenengoak, bere eretziz, “Aldundiak baztertuta euki dauen eskualdera berandu ailegetan dan” planaren gaineko xehetasunak eskatu ditu, eta Lopategik, “3,6 milioi eurogaz zer konpondu, bideratu eta martxan jarri daiken” galdetu dau. Bere erantzunean, Ahalduen Nagusiak, –ostean Imanol Pradales Ekonomia Garapeneko Foru Diputatuak Talde Popularraren itaunari erantzunez esan dauen moduan– Enkarterriko eskualdera bideratutako 3,6 milioi euroak ez ohiko partidea dirala azpimarratu dau, foru erakundeak bertara bideratzen dauen ohiko inbertsinoko 40 milioi euroei gehitzen jakena.

Gizarte eta lan arloan jarraituz, Josu Imanol Unanue EH Bilduko batzarkideak Gamesaren egoeraren gainean egin dauen galderari erantzun deutsio Imanol Padalesek, zemendian konpainia horrek “Euskal Herriko bere lantokietan 155 kaleratze” iragarri eta gero. EH Bilduko batzarkideak bere ardura erakutsi dau, konpainia multinazionalak hartzen dituen erabagien aurreko kontrol faltarengaitik, eta Aldundiari “lidergoa, ekimena eta industria plana” eskatu deutsio, holango egoeraren aurrean. Pradalesek, bere aldetik, erantzun deutsio Foru Aldundiak erakutsi ebala bere egunean bere “haserrea”, kaleratzeak iragarri ziranean, baina gerora enpresak EREa baztertu eta akordioa lortu dala sindikatuen ordezkarizagaz. Hori dala eta, “Aldundiak ez dauka zer eginik horren aurrean, akordioa lortu dalako pozik egoteaz aparte”.

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasuneko Foru Diputatuak, Podemos Bizkaia taldearen itaun bati erantzun deutsio, Zallako CEL Taldeko eta Urtuellako Renewable Hidroko beharginen egoeraren inguruan. Aldundiko arduradunak, konpainia horretako kaleratzeak jasan dituen pertsonak prestatuko eta barriro be lan munduan sartzeko bere sailak martxan jarri dituan lau programak azaldu ditu. 300 behargin baino gehiagok jasoko ditue programa horreen onurak.

Gizarte Ekintzako sailari jagokozan gaiak, inoren laguntza behar daben pertsonen eta egoitzen gainekoak, Isabel Sánchez Robles Sail horretako titularrak eta Ibone Bengoetxea Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko arduradunak erantzun ditue. Jesús Isasik (Talde Popularra) egindako galderari erantzunez, Zaintzailearen Estatutua 2018ko lehenengo hiruhilekoan onetsiko dala esan dau Sánchez Roblesekin, eta Josean Elgezabal Podemos taldekoak kontzertutako egoitzen gaineko auditoriari buruz egin dauen beste bati buruz, “enpresa pribaduei arautegian eta pleguetan agertzen dana zorrozatasun osoz beteteko eskatzen deutsegula” adierazo dau. Bengoetxeak, bere aldetik, Gizarte Ekintza Saileko beharginen beharren inguruan erantzun deutso Elgezabali. Holan, Sail horretako hainbat arlotan 13 plaza gehiago sortuko dirala iragarri dau, eta zerbitzuaren edozein behar koiunturali be arreta egokia emongo jakola.

Kontrolako Osokoa, oposizionoko taldeek planteatutako beste lau gaigaz osatu da. Holan, Lorea Bilbao Euskara eta Kultura foru diputatuak, museoen kudeaketarako Bizkaikoa erakundearen Aholkularitza Kontsejuaren gainean erantzun deutso Arturo Aldecoa Talde Mistoko ordezkariari; Elena Unzueta, Iraunkortasun eta Ingurune Natural saileko arduradunak guzurtatu egin dau, Josean Elgezabali erantzunez, Base Gorriaren itxierak ezelango segurtasun murrizketarik eragingo dauenik basoko zaintzan; eta, bukatzeko, Zigor Isuskiza EH Bilduko batzarkideak Bilbo – Getxo bidegorri proiektuaren gainean galdetu deutso Imanol Pradales, eta interoperabilidade nodoaren inguruan Ibone Bengoetxeari. Lehenengo itaunari jagokonez, Pradalesekin esan dau Aldundiak ez daukala ezelango erantzukizunik titularra Sustapen Ministerioa dan jabetza baten gainean (itsasadarreko errepidea). Eta Ibone Bengoetxearen eretxiz, nodoa “aukerarik hoberena da, soluzino fidagarriakaz eta kostu bazuakaz funtzionetan dauen eredu deszentralizaua”, hain zuzen be.

---

NOTA DE PRENSA

28/12/2017

## **El Diputado General de Bizkaia y seis miembros de su equipo han respondido a la oposición en el último Pleno de Control del año de las Juntas Generales**

Tras concluir el trámite de aprobación del Proyecto de Normal Foral de Presupuestos del Territorio Histórico para 2018, las Juntas Generales de Bizkaia han celebrado seguidamente su última sesión del año, un Pleno de Control en cuyo orden del día figuraban cinco interpelaciones y ocho preguntas formuladas por los grupos junteros de la oposición. Dos de las cuestiones han sido respondidas por el Diputado General, Unai Rementeria; tres por los responsables de los departamentos de Acción Social (Isabel Sánchez Robles) y de Desarrollo Económico y Territorial (Imanol Pradales); dos han sido dirigidas a la de Administración Pública (Ibone Bengoetxea); y una a Euskera y Cultura (Lorea Bilbao), Empleo (Teresa Laespada) y Sostenibilidad (Elena Unzueta), respectivamente.

Las interpelaciones y preguntas han versado principalmente sobre temas socioeconómicos (con varias cuestiones referidas a la situación en Enkarterri y una más sobre despidos en Gamesa) y de bienestar social (relacionadas con la situación de las residencias y con su personal). Los grupos junteros de EH Bildu, Podemos, Popular y Mixto se han interesado igualmente por pronunciamientos del equipo de gobierno en torno a la entidad de gestión de museos Bizkaikoa, la sociedad informática de titularidad foral Lantik, el proyecto de bidegorri Bilbao-Getxo o la reorganización del servicio de emergencias forestales.

La situación socio-laboral en la comarca encartada ha acaparado buena parte del protagonismo, con dos intervenciones de Unai Rementeria en respuesta sendas interpelaciones de Asun Merinero

(Podemos Bizkaia) y David Lopategi (EH Bildu), en torno al Plan de Impulso para Enkarterri acordado con los ayuntamientos de la zona. Merinero ha pedido detalles sobre un plan que a su juicio “llega tarde a una comarca abandonada por la Diputación”, mientras que Lopategi ha inquirido acerca de “qué se puede solucionar, encaminar y poner en marcha con solo 3,6 millones de euros”. En su respuesta, el Diputado General ha insistido –como lo ha hecho posteriormente el Diputado Foral de Desarrollo Económico Imanol Pradales a pregunta del Grupo Popular- en el hecho de que los 3,6 millones destinados a la comarca encartada son una partida extraordinaria, que se suma a los 40 millones de euros de inversión ordinaria por parte de la institución foral.

Siempre dentro del ámbito socio-laboral, Imanol Padales ha respondido a una pregunta del apoderado de EH Bildu Josu Imanol Unanue en torno a la situación en Gamesa, después de que la compañía anunciara en el mes de noviembre “un total de 155 despidos en sus plantas de Euskal Herria”. El juntero de EH Bildu ha expresado su preocupación por la falta de control ante este tipo de decisiones por parte de compañías multinacionales, y ha demandado a la Diputación “liderazgo, iniciativa y un plan industrial” ante situaciones similares. Por su parte, Pradales ha respondido que el ente foral ya expresó en su momento su “enfado” cuando se anunciaron los despidos, pero que posteriormente la empresa ha retirado el ERE y se ha producido un acuerdo con la representación sindical, por lo que “la Diputación no tiene nada que hacer al respecto, salvo congratularse por el acuerdo”.

La Diputada Foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha respondido por su lado a una interpelación de Podemos Bizkaia en torno a la situación de los trabajadores del Grupo CEL de Zalla y de Renewable Hydro de Ortuella. La responsable foral ha explicado los cuatro programas puestos en marcha por su Departamento para la recualificación y reinserción laboral de las personas afectadas por despidos en estas compañías, de los que se beneficiarán más de 300 trabajadores.

Las cuestiones referidas al área de Acción Social, y singularmente al cuidado de las personas dependientes y a las residencias, han sido respondidas tanto por la titular del Departamento, Isabel Sánchez Robles, como por la responsable de Administraciones Públicas y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea. Sánchez Robles ha contestado a una pregunta de Jesús Isasi (Grupo Popular) que el Estatuto del Cuidador se aprobará en el primer trimestre de 2018, y a otra del apoderado de Podemos Josean Elgezabal, en torno a la auditoría de las residencias concertadas, señalando que “a las empresas privadas les exigimos que cumplan estrictamente lo que aparece reflejado en la normativa y en los pliegos”. Por su lado, Bengoetxea ha respondido a Elgezabal en torno a las necesidades de personal en el Departamento de Acción Social. En este sentido ha anunciado la creación de 13 nuevas plazas en diversas áreas de este Departamento y ha asegurado que se atenderá igualmente cualquier necesidad coyuntural de servicio.

El Pleno de Control se ha completado con otras cuatro cuestiones planteadas por los grupos junteros de la oposición. Así, la Diputada Foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha informado al representante del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, acerca del Consejo Asesor de la entidad de gestión de museos Bizkaikoa; Elena Unzueta, responsable del área de Sostenibilidad y Medio Natural, ha negado, a pregunta de Josean Elgezabal, que el cierre de Base Gorria implique ninguna disminución de la seguridad en guardería forestal; y finalmente, el apoderado de EH Bildu, Zigor Isuskiza, ha preguntado a Imanol Pradales acerca del proyecto de bidegorri Bilbao – Getxo y a Ibone Bengoetxea sobre el nodo de interoperabilidad de Bizkaia, dependiente de Lantik. En el primer caso, Pradales ha declinado cualquier responsabilidad de la Diputación sobre una propiedad (la carretera de la ría) de la que es titular el Ministerio de Fomento. E Ibone Bengoetxea ha considerado que el nodo es “la mejor opción, y un modelo descentralizado que funciona con soluciones fiables y a bajo costo”.